txintxarri

2021-01-08 OSTIRALA / 1529. ZENBAKIA
LASARTE-ORIA TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

# Kultur ekintzak, martxan

Zinema, antzerkia eta opera hartu ditu ardatz Lasarte-Oriako Udalak, urtarrileko agenda kulturala osatzeko / 2

TXINTXARRI

## Ez dute hutsik egin

Neurriak neurri, Olentzero eta Mari Domingi zein Errege Magoak etorri dira Lasarte-Oriara / 8-9

**Euskara sustatzen jarraitzeko hitzarmena sinatu dute Ttakun KEk eta udalak** / 3

**Lasarte-Oriako igerilariek, lehiaketa ederra Nazioarteko 38. Eguberrietako txapelketan** / 10

txintxarri

*Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz*

*Hurrengo Txintxarri paperean* ***urtarrilaren 22an*** *argitaratuko dugu*

Bitartean, jarraitu herriko albisteak sarean: **www.txintxarri.eus**

**Trasteleku eta biltegi txikien alokairua Urnietan**

Merkatuko preziorik onenak bermatzen dizkizugu!

barne

605713127

Igarategi Industrialdea 70. URNIETA
Bulegoa: Muebles Iturbe
www.minialmacenes-barne.com

# Urtarrila, kultur ekintzaz betea

Urtarrileko kultur agendaren berri eman du Lasarte-Oriako Udalak. Hiru diziplina hartu ditu ardatz: zinema, antzerkia eta opera, eta horien inguruan, emanaldi ugariz beteko da urtarrila. Ekitaldi horien artean, 'Erlauntza' filma ikusteko aukera izango da, hilaren 22an

**Txintxarri**

Etxeko txikienei eskainitako bi ekitaldik ireki dute 2021. urtea: urtarrilaren 3an, igandearekin, *Stardog&Turbocat* luzemetraia proiektatu zuten Manuel Lekuona kultur etxean, euskaraz, 17:00etan. Bi egun beranduago, berriz, astearte honetan, *Go!azen* saio arrakastatsuko protagonistek kontzertua taularatu dute toki berean, 16:30etik 19:30era.

Urtarril hotzari aurrea hartzeko, ordea, kultur ekitaldi bat baino gehiago izango dira datozen asteetan ere. Okendo Zinema Taldeak, esaterako, bi zineforum programatu ditu urte berriko lehen hilabeterako, 8an eta 22an. *Corpus Christi* eta *Erlauntza* filmak emituko dituzte, hurrenez hurren. Koronabirusaren hedapena gutxitzeko gaur egun indarrean dauden neurriak direla-eta, 19:00etan hasiko dira bi proiekzioak, kultur etxeko auditorioan. Sarrerek 5,50 euro balio dute.

**Zinema, opera eta antzerkia**

Urtarrileko bigarren igandean, 10ean, *En guerra con mi abuelo* pelikulaz gozatu ahalko dute lasarteoriatarrek, 19:00etatik aurrera, eta, sarrerak, 5,50 euroren truke erosi beharko dituzte. Hiru egun beranduago, urtarrilaren 13an, asteazkenez, Giacomo Pucciniren *Tosca* opera ekarriko du udalak kultur etxera, 18:00etan. Emankizunaren eguna hurbildu ahala, sarrerak merkeagoak edo garestiagoak izango dira: aurrez erosiz gero, 7,50 euro, eta, egunean bertan, 9 euro.

Haurrentzako zinema berriro ere urtarrilaren 17an, igandearekin. Orduko horretan *Trolls 2: gira mundial* filma eskainiko dute arratsaldeko bostetatik aurrera, kultur etxean. Emanaldi hori ikustera joan ahal izateko sarrerek 3,80 euro balio dute.

Hilaren 23an, *Fadoak entzuten zituen gizona* antzezlana oholtzaratuko du Xake Produkzioak konpainiak. Emanaldia 19:00etan hasiko da, eta sarrerek 5,50 euro tan erosi ahal izango dituzte bertaratu nahi duten ikus-entzuleek.

Hilabeteko azken bi igandeetan, 24ean eta 31n hain justu, bi film luze programatu dituzte. Azkena haurrei zuzendua izango da, *Los Fixies contra los Crabots* (Fixieak Crabotsen aurka), 17:00etan hasiko da emanaldia eta 3,80 euroren truke erosi beharko dituzte sarrerak. Bestea, berriz, *Enjambre* (Erlauntza) izango da, 19:00etan, 5,50 euroren truke.

## Urtarrileko kultur agenda: egitaraua

**Urtarrilak 8, ostirala, Auditorioan, 19:00etan**
• Okendo Zinema Taldearen eskutik, *Corpus Christi* filma. Sarrera, 5,50 euro.

**Urtarrilak 10, igandea, Auditorioan, 19:00etan**
• Helduentzako zinema saioan, *En guerra con mi abuelo* filma. Sarrera, 5,50 euro.

**Urtarrilak 13, asteazkena, Auditorioan, 18:00etan**
• *Tosca* opera digitala. Sarrera, 7,5 eta 9 euro artean.

**Urtarrilak 17, igandea, Auditorioan, 17:00etan**
• Haurrentzako zinema saioan, *Trolls 2: Gira Mundial* filma. Sarrera, 3,80 euro

**Urtarrilak 22, ostirala, Auditorioan, 19:00etan**
• Okendo Zinema Taldearen eskutik, *Erlauntza* filma. Sarrera, 5,50 euro.

**Urtarrilak 23, larunbata, Auditorioan, 19:00etan**
• Xake Antzerkia konpainiaren eskutik, *Fadoak entzuten zituen gizona* antzezlana. Sarrera, 5,50 euro.

**Urtarrilak 24, igandea, Auditorioan, 19:00etan**
• Helduentzako zinema saioan, *Enjambre* filma. Sarrera, 5,50 euro.

**Urtarrilak 31, igandea, Auditorioan, 17:00etan**
• Haurrentzako zinema saioan, *Los Fixies contra los Crabots* filma. Sarrera, 3,80 euro.

# Izar Agirretxe herritarraren master amaierako lana saritu du Euskal Herriko Unibertsitateak

Euskal Herriko Unibertsitateko Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak antolatzen duen IV. Izaskun Heras Prado Saria irabazi du lasarteoriatarrak. Gaitasun ezberdinak dituzten ikasleen parte hartzea bermatzea izan da lanaren helburuetako bat

**Txintxarri**

*Gorputz adierazpena testuinguru inklusiboak sortzeko tresna gisa* izenburua duen master amaierako lana egin du Izar Agirretxe Iradi herritarrak, eta egindako lanak jaso berri du aitortza bat: Euskal Herriko Unibertsitatearen IV. Izaskun Heras Prado Saria. EHUren Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak antolatzen du eta lehenengo saria jaso du lasarteoriatarraren lanak. EHUko ikasleen artean kultura inklusiboa zabaltzea, eta gizartearen sentsibilizazioan laguntzea du helburu sariak, eta, hain zuzen ere, gorputz adierazpenak testuinguru inklusiboak sortzeko eskaintzen dituen aukerak zeintzuk diren aztertu ditu master amaierako lanean.

Joan den ikasturte amaieran egin zuen master amaierako lana Agirretxek, Irakaskuntzako Masterra gauzatzen ari zela, eta ikasketa prozesuaren praktikak egitera joan zen eskola batera. Bertan, gaitasun eta behar ezberdinak zituzten ikasleekin topo egin, eta ikasleak irakasleak proposatutako testuingurura egokitu beharrean, testuinguruak ikasleen beharretara, "klaseko errealitatera" egokitzeko ahalegina egin zuen. Bertako ikasle guztien parte-hartzea bermatzea zen lanaren helburuetako bat.

Izar Agirretxe Iradi. IZAR AGIRRETXE IRADI

Agirretxerentzat beharrezkoa da "hezkuntza aukera berdintasunaren eta parekidetasunaren printzipioetan oinarritzeaz gain, aniztasuna aberastasun modura ulertzea".

**Irakaslearen proposamena**

Master Amaierako lanean Esther Uria Iriarte irakasleak egin zizkion tutore lanak, eta hark proposatu zion sarian parte hartzea. Agirretxek azaldu du ordura arte ez zuela Izaskun Heras Pradoren berri, baina bere berri izan zuenean, "pertsona eredugarria" iruditu zitzaion.

Inklusioa bultzatzen dute gisa horretako sariak existitzea "garrantzitsua" da lasarteoriatarrarentzat: "Guztiontzat beharko lukeen mundua eraikitze bidean inklusioaren gaia sozializatzen eta ikustarazten laguntzen dutelako".

Mari Karmen Ormazabal, Ttakun KEko lehendakaria, Euskara batzordeburua eta alkatea ondoan dituela. TXINTXARRI

# Euskara babesten jarraitzeko hitzarmena

2020-2021 ikasturteko hitzarmena sinatuta hasi du Ttakun KEk urte berria; elkarteak euskal kulturaren alde egiten duen lana babestuko du, beste urte batez, Lasarte-Oriako Udalak. Horren bitartez, herriari zuzendutako hamaika ekintza antolatuko ditu kultur elkarteak

**Txintxarri**

Ttakun Kultur Elkarteak euskara eta euskal kulturaren alde egiten duen lanak udalaren babesa jaso du beste urte batez. Ttakuneko lehendakari Mari Karmen Ormazabal eta herriko alkate Agustin Valdiviak sinatu dute hitzarmena, Jon Antxordoki Euskara batzordeburua aurrean zela. Horren bitartez, 180.686,08 euroko laguntza jasoko du elkarteak ikasturteko ekintzetarako.

Urtean zehar, Ttakun Kultur Elkarteak adin guztietako herritarrei zuzendutako hamaika ekintza burutzen ditu eta COVID-19aren aurkako neurri guztiak betez, guztiak martxan daude.

Amaraun Klubeko tailer edo ipuin kontalariak; Gazte Klubeko edo Kuadrillategiko asteroko saioak edo asteburuko ekintzak Lasarte-Oriako haur eta gazteek ez dute aspertzeko astirik.

Ikastoletako eta Haurtzaindegiko guraso elkarteekin eta Muntteri-AEKrekin batera aurrera eramaten den *GurasoLandia* ekimena; euskaldun berriek mingaina askatzen laguntzeko Solaskide programa edo irakurtzen ari zaren Txintxarri aldizkaria dira ekimen horietako batzuk.

Euskal kultura sustatzen dituzten ekintzak ere egiten ditu elkarteak, hala nola, Euskal Jaia edo bertso saioak.

2020an, gainera, udalarekin batera Euskaraldia ekimena kudeatu du Ttakun Kultur Elkarteak eta horrek urteroko kopurua handitzea ekarri du.

NEURE KABUZ

**GORKA LASA**

## Amets

Leihotik begira geratu da, aho-zabalik, txundituta, itsasoaren kolorea duten begiekin elur zuriari begira. Zuri-zuri esnatu dira gaur kaleak, parkeak, belazeak, mendiak ... Urtarrileko egunsenti aratza bezain berezia gaurkoa.

Ez du lanera joan beharrik, jai-eguna baita; beraz, gaur ez du zortzi orduz musukoa jarrita ibili beharrik izango ditxosozko birusa saihesteko. Txerto(ar)ekin asmatuko ahal dute! Gai horrek sortzen dizkion zalantzak uxatzen saiatzen da.

Leiho aurrean bira egin, eta salarantz abiatzen da, han utzi baititu bart oinetakoak gabonetako zuhaitzaren azpian. Makurtzean, begietan eta ezpainetan une berean agertu zaio irribarre samurra, haurtzarora daraman ikuspegiagatik: koloretako paperean bildutako opariek gordetzen dituzten ametsak beteko ote diren itxaropena sentiarazi diote.

Opari horietan honakoak aurkitu nahi ditu: lurra eta itsasoa kutsatuko ez dituzten ontziak, adibidez, mundu garbiagoa eta jasangarriagoa utzi nahi baitie ondoren datozenei; liburu, disko, kontzertu, zinema nahiz antzerkirako sarreraren bat, ezinbesteko iruditzen baitzaio kulturak eskaintzen duen adierazpenaz norbera aberastea, eta aldi berean, gozatzea; eta, azkenik, urtero uzten dioten galtzerdi parea.

Baina bere oparia zabaltzean, irribarrea zabaldu egin zaio, esku artean baitu amak trikotatutako bufanda, hark esaten duen legez, mundu honen gaitzetatik babesteko.

## Hirugarren saria, herrian

Izaguerri administrazioko lagunek Erregeetako loteriaren zenbaki sarituetako bat saldu dute: 5.587.a, hain justu. Hirugarren saria egokitu zaionez zenbaki horri, erosleek 25.000 euro poltsikoratu dituzte dezimo bakoitzeko.

Loteriak diru dezente banatu du Hego Euskal Herrian, 13 milioi eurotik gora, lehenengo, bigarren eta hirugarren sariak irabazi baitituzte hango eta hemengo biztanleek. Lehen saria 19.570 izan da.

TXEMA VALLES

# Herriz herri bidea egiteko deia urtarrilaren 9rako

Sarek manifestaziora deitu du hainbat herritan; Lasarte-Oriak ere bat egin du. Hitzordua Okendon jarri dute, 17:30ean

**Txintxarri**

Urtarril hasieran milaka eta milaka pertsona joan ohi dira Bilbora, Sarek antolatutako manifestazio nazionalean parte hartzera. Aurten, COVID-19a tarteko, antolatzaileek erabaki dute herriz herri egitea mobilizazioak, Euskal Herri osoan zehar. Lasarte-Oriako Sarek bat egin du deialdiarekin, eta Okendo plazan jarri du hitzordua larunbatean, urtarrilak 9, 17:30ean.

Euskal presoak Euskal Herrira ekartzea, gradu-progresioa ahalbidetzea, larriki gaixo daudenak haien etxeetara eramatea, adinez nagusiak diren presoak etxeratzea... Eskakizun horiek eta beste hainbat egingo dituzte Sareren deialdiarekin bat egiten duten herritarrek larunbat honetan. "Etxerako, bakerako eta elkarbizitzarako bidean" aurrera egiteko asmoz antolatu ditu eragile horrek manifestazioak. Horren

Deialdiaren kartela. TXINTXARRI

harira, salbuespenezko espetxe politikarekin amaitzea "funtsezkoa" dela azpimarratu du Sarek, beste behin. "Ezinezkoa da aurrera egitea oraindik hainbeste sufrimendu sortzen duen egoera aldatu gabe". Frantzia eta Espainiako Gobernuek azken hilabeteetan egindakoa ere baloratu du: "Nahikoa ez den arren, Xistor Aranbururen baldintzapeko askatasunak eta Espainian preso daudenen lekualdatze eta gerturatzeek erakusten dute jarrera aldaketa bat ematen ari dela".

**Jabi Gallaga, Darocara**

Joan den urteko abenduaren 30an, Espainiako Gobernuko Barne Ministerioak jakinarazi zuen gerturatu egingo zituela zenbait euskal preso, Jabi Gallaga herritarra tartean. Cordobako espetxean eduki dute preso, Lasarte-Oriatik 860 kilometrora, 2004. urtean atxilotu zutenetik. Esan bezala, lasarteoriatarra gerturatu egingo dute Zaragozako Daroca espetxera, herritik 300 kilometro pasatxora, eta bigarren gradua ezarriko diote. Orain arte lehenengoan egon da, eta isolamenduan, "egoera muturrekoenean", Espetxe Politiken Behatokiko kide Teresa Todak azaro erdialdean Maider Galardi kazetariarekin batera eskaini zuen hitzaldian azpimarratu zuenez. Cordobako espetxea eta Gallagaren egoerari buruz solastu ziren.

# Ikaskuntza bitartekaritza zerbitzu berria eskualdean

Adin-talde guztietako pertsonei prestakuntzaren alorrean informazioa eskaintzeko doako zerbitzua da

**Txintxarri**

Daiteke Gizarte Aholkularitzak martxan jarri du eskualdeko sei udalerrietan bizi diren adin-talde guztietako pertsonei zuzendutako ikaskuntza bitartekaritza zerbitzua. Herritarrei aholkularitza eta informazioa eskaini nahi die Daitekek, eskualdean egiten diren prestakuntza formal, ez formal eta informalaren gaineko saioei buruz. Zerbitzu horrek banakako aholkularitza eskaintzen die herritarrei, "prestakuntza prozesu horietan aholkatuta eta lagunduta".

Ikaskuntza bitartekaritza zerbitzu hori eskaintzen duen bulegoa Hernanin dago, Florida auzoa 28 zenbakian. Ordutegia honako hau da: astelehenetik ostegunera 08:30etik 16:30era eta ostiraletan 08:30etik 14:30era. Interesa dutenek aurrez hartu beharko dute hitzordua 688 77 46 50 telefonora deituta edo *bitartekari.beterri@daiteke.com* helbide elektronikora idatzita. Hitzorduak bi motatakoak izan ohi dira: presentzialak edo bideo-dei bidezkoak.

**Adin-talde guztientzat**

Daitekek eskaintzen duen zerbitzua erabil dezakete gazteek, helduek zein adinekoek, lanean egon edo langabezian, ikasten... Ikaskuntza bitartekaritza hori doakoa da. Helburuetako bat da pertsona horien heziketa prozesuan laguntzea eta aholkatzea, eskualde mailan egiten diren ikastaro, saio, tailer eta bestelakoen berri emanez. Profesionaltasun agiria lortu nahi dutenek ere laguntza jaso dezakete zerbitzu horretan.

Daitekek ondoko web-orri hau sortu du, zerbitzu horri buruz informazio gehiago emateko: web *https://sites.google.com/daiteke.com/bitartekari-mediacion-beterri*.

# Lasarte-Oria feministago bat eraikitzen jarraitzeko

Herriko neska* talde batek aSUnak izeneko eragilea sortu du berriki. Manuel Lekuona kultur etxean aurkeztu du egitasmoa, eta parte hartzera gonbidatu Lasarte-Oriako neska* eta emakumeak*. Urte osoan zehar ekimenak, formakuntza saioak eta bestelakoak egingo ditu

**Iñigo Gonzalez Sarobe**

Urte berriaren hasiera aproposa izan ohi da norbere buruari erronkak botatzeko: gimnasiora joan, tabakoa erretzeari utzi... 2021. urterako, Lasarte-Oria feministago bat eraikitzen jarraitzeko helburua jarri diote euren buruei aSUnak talde feminista sortu duten neska* gazteek, baina azken hori ez da lehen aipatutako promesa hutsal horiek bezalakoa. Ez: lanketa sakona abiatu dute, hilabete askotan zehar sutan egositakoa. Sortzaileek nahi dute ahalik eta kide gehien batzea egitasmora; hori izan da kultur etxean egin duten aurkezpenean sarrien errepikatu duten ideietako bat.

Aurkezpen ekitaldian prosa bakarrik ez, antzerkia, musika eta poesia ere erabili dituzte. Ekitaldiko gonbidatu bereziena, zalantzarik gabe, *Amona Asun* izan da. Eserlekutik altxa, hitz egiten hasi eta, nostalgia kutsu batekin, oroitu ditu gaztea zeneko garai horiek, bera eta beste emakume batzuk sutondoan esertzen zirenekoak, haien gauzei buruz hitz egiteko, gauza batez eta besteaz kexatzeko, bizi zuten zapalkuntza egoera iraultzeko. Orain "erretiratzeko garaia" iritsi zaiola esan du, eta kultur etxean zeuden neska gazteei iritsi zaiela "jo eta ke lan egiteko" garaia eta aSUnak taldera batzekoa.

Kultur etxeko hitzaldi aretoan aurkeztu dute aSUnak talde feministaren proiektua. TXINTXARRI

### Lekukoa hartu

*Amona Asunen* testigua hartu dute Lasarte-Oriako neska* gazte batzuek, ongi hartu ere. Egitasmoaren nondik-norakoak esplikatu dituzte kultur etxean: sorrera, helburuak, nola antolatu diren...eta eragile sortu berri horren izena nondik datorren ere bai. Bukaerako *-k* horrekin, esate baterako, adierazi nahi dute asmoa dela pertsona asko batzea egitasmora, aSUnak ez baitute sortu norbanakoentzat, eragile "anitza eta plurala" izateko baizik.

Irailean udaleku feminista batzuk antolatu zituzten, besteak beste, Lasarte-Orian. Arrakasta ikusita, urrats bat gehiago egin eta talde formal bat sortzea erabaki dute aSUnak egitasmoko kideek. "Bide propioa" egiten hasi dira, baina elkarlanean aritu nahi dute herriko eragile feministekin.

Egutegian gorriz (edo morez) markatutako egunez harago joan nahi du taldeak, eta urtean zehar aktiboa izan. Azpitaldetan antolatu dira (aisia, formakuntza...); lanketa osoa euskaraz egiten dute. Zabalkunderako WhatsApp talde bat sortu dute; interesa duen edonor batu daiteke.

Eskualdeko egoera aztertu du Irauli sareak azken hilabeteetan. IRAULI SAREA

# Irauli sortu dute, Buruntzaldeako Langile Prekarioen sarea

Kontzientziatu eta formatzeaz gain, "sistema kapitalistak eragindako prekarizazioa" salatuko dute, dinamiken bitartez

**Txintxarri**

Eskualde mailako egitasmoa da Irauli: kontzientziazioaren eta formakuntzaren eta erantzun edo salaketa dinamiken bitartez, langileriaren problematikari aurre egiteko borrokei ekingo diete kideek. "Zapaltzen gaituen sistemari aurre egiteko mekanismoak sortuko ditugu".

*Antolatuta harrapa gaitzala*. Lelo horrekin aurkeztu du proiektua Irauli Buruntzaldeako Langile Prekarioen Sareak. Antolatu nahi dute, langileria "etengabeko prekarizazio prozesu batera" kondenatzen duten agintarien neurriei aurre egiteko. "Sistema kapitalistaren gabeziak eta hutsuneak ezagunak diren arren, COVID-19ak era gordinenean azaleratu ditu horiek, klaseen arteko talka eta langileon zaurgarritasuna areagotuz".

Irauli sareko kideek salatu dutenez, kapitalak "krisi berriari konponbide zaharrak" eman nahi dizkio, "ondorioen pisu guztia langilearen bizkar" utzita, "elite ekonomiko eta politikoen interesak eta irabaziak bermatzen diren bitartean, langileen bizi baldintzak eta bizitza bera jokoan jarriz".

### Sistema iraultzeko

Testuinguru horretan, eskualdeetako herri desberdinetako zenbait pertsonak Irauli Buruntzaldeako Langile Prekarioen Sarea sortu dute, beharra ikusi baitute "antolatzeko eta langilegoaren mesederako izango den sistema baten aldeko borrokari ekiteko". Langileen problematikei aurre egingo dieten borrokei ekingo diete, formakuntzan eta kontzientziazioan sakonduko dute, baita langileen antolaketa indartuko eta "sistema zapaltzaileari" aurre egiteko mekanismoak sortu ere.

# PLAZAN BAZAN

## Hamahiru!

Aurki itzazu bi irudion artean dauden aldeak. 13 dira guztira.

## Itzala

Zein da eskiatzaile traketsaren itzal zuzena?

## Elur bola

Zer sartuko zenuke elur bola batean? Paisaia zuritu bat? Otsoa? Eskiatzaileak? Marraztu.




# Hauxe Parea

Arrain hauen artetik bi berdin-berdinak dituzu (tira, agian bat bestea baino handiagoa, baina gainontzean berdin-berdinak). Zeintzuk ote dira?

# Arrotza

Lerro bakoitzean bada elementu bat gainerakoekin bat ez datorrena.



# Mezu gordea



Eman beheko irudi bakoitzari bere hizkia eta esaera zahar bat osatuko duzu.



# Negu gorriko sudokuak

Osatu lauki zuriak sudoku bakoitzari dagozkion hizkiak kontuan hartuta. Gogoratu letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

**NEGU**
(N, E, G eta U)

| | | | |
|---|---|---|---|
| | N | | E |
| | | N | |
| | G | | |
| U | | G | |

**GORRI**
(G, O, RR eta I)

| | | | |
|---|---|---|---|
| O | | | G |
| | | RR | |
| | O | | |
| I | | | RR |




Egilea: Garbiñe Ubeda

Soluzioak: www.plazanbazan.eus

# Bisitatu dituzte etxeko txikiak

Koronabirusak hankaz gora jarritako urtean ere etorri dira Lasarte-Oriara Mari Domingi eta Olentzero. Urteroko harrerarik ez, baina ikuskizun ederra egin dute kultur etxean

**Txintxarri**

Maskarak jantzita, sarritan kosta egiten da guretzat ezagunenak diren pertsonak nortzuk diren jakitea. Olentzero eta Mari Domingirekin, ordea, ez dago konfunditzeko aukerarik, are gehiago haien zain urte oso bat (eta a zer nolako urtea) zain igaro ostean. Kultur etxeko eszenatokira irten zirenean, pozez zoratu ziren ikus-entzuleak, eta gogotik gozatu zuten haiekin eta euren lagunekin: Porrotx, Marimotots, Xixuko eta Mari Teilatuko.

*Koro eta Maria Luisak* (koronabirusak) hankaz gora jarri dute mundua, eta eragin dute urteroko ikuskizuna desberdina izatea: Okendo plazan ordez, kultur etxeko auditorioan egin zuten, beharrezko neurri guztiak zainduta. Imajinatu amaitzear zegoen 2020a nolakoa izan zen, Olentzero bera ere nahastu egin zela! Lagun guztiak eszenatokian zain zituen, eta bera agertu ez: uda eta negua nahastu omen zituen, eta ahateen parkean zegoen bainu bat hartzen. Eskerrak oholtza gainera igo zenetako bat Xixuko izan zen: ahate hizkuntzan hitz egin zien urmaelean Olentzerorekin zeuden hegaztiei, eta haiek abisatu zioten ziztu bizian kultur etxera joateko.

Garaiz iritsi zen, eta kultur etxean emanaldia eskaini zuten seiek gogotik gozatu zuten ikus-entzuleekin, kantuan eta dantzan. Olentzero eta Mari Domingi etxera joan ziren emanaldia amaitu eta berehala, gauerako atseden hartzera, gauean opariak banantzen hasi aurretik.

**Goizean, auzoz auzo**

Olentzerok, Mari Domingik eta lagunek ezin izan zuten ohiko kabalgata egin aurten, baina herritarrak ez ziren pertsonaia maitagarri horiek ikusi eta euren maitasuna jaso gabe geratu. Gunez gune antolatu zituen bisitak Ttakun KEk, zazpi toki desberdinetan, txandak emanda eta aforoa neurtuta, *Koro eta Maria Luisari* sartzen utzi gabe. Haurrek Olentzero edo Mari Domingirekin hitz egin ahal izan zuten. Euren eskutitzak postontzi edo saskietan utzi zituzten, gauaren zain, eta ezustekoz betetako poltsatxo bat ere jaso zuten.

Xixukok ere bisitatu zituen ikasle gazteak. Horiek pertsonaia maitagarrientzako prestatutako marrazkiak jaso zituen, Mari Domingiri eta Olentzerori emateko.

Kultur etxeko ekitaldira gerturatutako herritarrak. TXINTXARRI

Ikus-entzule gazte zein helduak, emanaldia hasteko zain. TXINTXARRI

Porrotx eta Marimotots, Xixukorekin. TXINTXARRI

Mari Domingi eta Mari Teilatuko oholtza gainean. TXINTXARRI

Olentzero ere egon zen oholtzan, bere lagunekin. TXINTXARRI

Mari Domingi Zabaletako lagunak bisitatzen, goizean. TXINTXARRI

Olentzero Garaikoetxean, txikiekin hizketan. TXINTXARRI

Sasoetara ere joan ziren Olentzero bisitatzera. TXINTXARRI

Ikasleek egindako marrazkiekin apaindu zituzten bisita guneak. TXINTXARRI

Haurrak, Melchor erregea ikusteko zain. TXINTXARRI

Adi entzun ditu Melchorrek gaztetxoek kontatutakoak. TXINTXARRI

Talde argazkirik ez da falta izan. TXINTXARRI

Gaspar erregea Garaikoetxea-Landaberrira etorri da. TXINTXARRI

Gaspar eta laguntzailea, familiak agurtzen. TXINTXARRI

Haurrek erregeekin hitz egin dute. TXINTXARRI

# Errege Magoak ere iritsi dira

Ekialde Urrunetik etorri dira aurten ere Melchor, Gaspar eta Baltasar erregeak. Kabalgatarik egin izan ez badute ere, haurren gutunak jaso, eta opari mordoa banatu dituzte

**Txintxarri**

Guzti-guztia ezohikoa den garai hauetan, Errege Magoen etorrera ere halakoa izan da: desberdina. Brigitarren komentuan ez, herriko ikastetxeetara joan dira Melchor, Gaspar eta Baltasar erregeak aurten, eta ez hiruak batera: Melchor, Sasoetan; Gaspar, Garaikoetxea-Landaberrin; eta, Baltasar, Zumaburun. Megaba elkarteak gaur egun indarrean dauden neurrietara egokitutako harrera antolatu du, etxeko gazteenek erregeekin egon eta eskutitzak eman ahal izateko. Musuak ere elkartrukatu dituzte haurrek eta erregeek, baina beti ere distantzia fisikoa mantentzen.

Adi entzun dituzte hiruek etxeko gazteenen eskariak: jostailuak, eskulanetan aritzeko materiala, margoak, baloiak, bizikletak, bideojokoak... Denetik eskatu diete, eta Melchor, Gaspar eta Baltasarrek bete dituzte eskariak, astearte gauean herritarren etxeetara joan eta opariak zuhaitz azpian utzita. Horren truke, esnea, gailetak, gozokiak...jan dituzte, gau luzeari ekiteko indarrak hartzeko. Garai ezohiko eta arraro hauetan zenbait usadio mantendu ahal izan dira behintzat.

Ohitura eta tradizio batzuk bai, baina beste batzuk ez, COVID-19ak hala eraginda. Kabalgatak ez du Lasarte-Oria zeharkatu aurten. Karroza koloretsuek eta zaldiek ohi baino atseden gehiago hartu behar izan dute halabeharrez, 2022. urte hasieran dena normaltasunera itzuliko den esperantzaz. Nork daki, agian haurren batek hori ere eskatuko zuen bere gutunean.

**Megabaren harrera**

Esan bezala, Errege Magoei aurten egin zaien harrera desberdina izan da. Brigitarren komentura joan beharrean, herriko zenbait ikastetxetara joan dira Melchor, Gaspar eta Baltasar haurren eskutitzak eta maitasuna jasotzera. Laguntzaileek zaindu dute aforoa: gehienez sei pertsonako taldeetan joan dira –bizikidetza unitate berekoak izanez gero–. Gel hidroalkoholikoa eman diete eskuetan haurrei eta gurasoei, eta orduan sartu dira erregeekin hitz egitera. Eskutitza postontzian sartu, eta bizpahiru minutuz aritu dira berriketan, gustura. Atera eta hurrengo familiari tokia utzi aurretik, gaztetxo bakoitzak gozokiz betetako poltsa jaso du, erregeek opariak ekarri bitartean jateko.

Baltasar erregea ikustera etorri da familia hau. TXINTXARRI

Pajeen laguntza ezinbestekoa izan da aurten ere. TXINTXARRI

Baltasarrek haurrek postontzian botatako gutunak irakurri ditu. TXINTXARRI

# Nazioarteko Eguberri txapelketa bikaina

Bidasoa XXI taldeko Ainhoa Martinek sari nagusia eskuratu du; Leire ahizpa ere podiumean izan da, bigarren postuan. Buruntzaldea IKTko Nahia Zudairek 50 metro libre proban, S8 mailako Espainiako errekor berria ezarri du

Ainhoa Martin, eskuinean, Eguberriko txapelketako sari nagusia eskuetan. LOBO ALTUNA

Buruntzaldea IKTko igerilarietako batzuk, Paco Yoldi igerilekuan. BURUNTZALDEA IKT

**Txintxarri**

Nazioarteko igerilariak abenduaren 29an bildu ziren Donostiako Paco Yoldi igerilekuan, nor baino nor gehiago, Nazioarteko 38. Eguberri txapelketako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza Sari Nagusia eskuratzeko.

2020. urte bereziari amaiera emateko bertan izan ziren Buruntzaldea IKTko igerilariak, baita Irungo Bidasoa XXI taldean lehiatzen diren Ainhoa eta Leire Martin herritarrak ere. Nazioarteko txapelketa horretan bi ahizpek Euskal Herriko selekzioarekin parte hartu zuten, eta, nahiz eta faboritoen artean ez egon, Sari Nagusiko lehen postua eskuratzeko lehia bizia izan zuten Martin ahizpek. Txapelketako azken proban, 200 metro lau estilo proban erabaki zen irabazlea: Ainhoa Martin.

Leirek indartsu hasi zuen lehiaketa eta 50 m. bizkar proban eman zuen abisua. Sailkapenean 30.61 egin ostean, finalean 29.96 behar izan zituen. Denbora horri esker, 17 urteko Euskadiko errekor berria ezarri zuen aurrekoa 30 segundotan hobetuz.

Sailkapen orokorrera begira, 730 puntu eskuratu zituen eta horrek, sari nagusiko emakumezkoen lehen postuan jarri zuen.

Ainhoak 50 metro tximeleta probako finalean bigarren postua lortu arren, 17 urteko Euskadiko errekorra egin zuen, 28,32.

Bi final horiez gain beste hiru finaletan egoteko txartela eskuratu zituzten Martin ahizpek, baina ez ziren horietan lehiatu. Ainhoak 50 m. eta 100 m. bular probetako sailkapena eskuratu zuen; Leirek, berriz, 100 m. bizkar proban.

Azkenean, 200 m. lau estilo proban erabaki zen Sari Nagusiko irabazlea. Sailkapenean bi ahizpek lehen bi postuak eskuratu zituzten eta finalean ere ez zuten hutsik egin. Ainhoak 2:19.65 denboran geratu zuen kronoa. Nahiz eta aste bete lehenago Castellon eskuratutako 17 urteko Euskadiko errekorretik gertu ez egon (2:18.31), Nazioarteko txapelketako puntuaziorik altuena eskuratu zuen emakumeen mailan, 736.

Era honetara, sailkapen orokorrean, sei puntuko tartea besterik ez zen egon bi ahizpen artean. Ainhoa lehena izan zen. Bigarren Leire izan zen, 50 m. bizkar probako puntuei esker eta hirugarren, Easo taldeko Maider Redin izan zen, 713 punturekin.

Gizonezko mailan, Real Canoeko Hugo Gonzalez balearra izan zen garaile (875), C.D. Sek taldeko Juan Francisco Segura madrildarra bigarren izan zen (843) eta C.N. Santa Olaya taldeko Cesar Castrok (798) osatu zuen hirukoa.

### Espainiako errekorra

Buruntzaldea IKTko kideak ez ziren esku hutsik atera Donostiatik. Aintzane Sarobe, Nora Imaz, Izaro Audikana, Nerea Santos, Nahia Zudaire, Mikel Esnal eta Unai G. Somovilla izan ziren taldeko ordezkariak eta hiru marka pertsonal, Espainiako Errekor berri bat eta taldeko bi errekor berri ezarri zituzten.

Igeriketa egokituaren atalean, Nahia Zudairek bere prestaketa bide onetik doala erakutsi zuen eta bere marka hobetu zuen 50 m. libre probako sailkapenean, 33,31. S8 klaseko Espainiako errekor berria ere ezarri zuen. Arratsaldeko finalean ere errekorra berriro hautsiko zuela zirudien arren, ehuneko batera geratu zen, 33,32.

Nora Imazek ere proba berean bere marka pertsonala ondu zuen, 29,64 eginez. Eta Izaro Audikanak, 50 m. bular probako kronoa 41,04an geratuz, balentria bera lortu zuen.

Marka pertsonalik gabe baina taldeko 16 urteko errekor berria egin zuen Aintzane Sarobek, 50 m. libre proban (28,66). Bestetik, Mikel Esnalek 26,41 egin zuen 50 m. libre proban eta Nerea Santosek 41,54, 50 bular proban. Unai G. Somovillak, berriz, 35,53 egin arren, deskalifikazioa jaso zuen proba berean.

## Arteaga II.a, binakako Promozio txapelketan murgilduta

Herritarrak Elizegi du bikotekide. Hamalau jardunaldiko sailkapen ligaxka jokatuko dute apirilera arte

**Txintxarri**

Urte berriarekin batera, Promozio mailako eskuz binakako lehiaketa hasi zen, Eibarko Astelena pilotalekuan. Bertan izan zen Axier Arteaga, Arteaga II.a. Elizegi lagun duela, maila horretako 2021 urteko txapelketa jokatzen hasi da.

Lehen jardunaldian, ordea, ez zuen zorterik izan Arteaga II-Elizegi bikoteak. Larrazabal eta Eskiroz izan zituzten aurrez aurre, eta 22-17 galdu zuten.

Binakako txapelketa ligaxka moduan jokatuko denez, Arteaga II.ak eta Elizegik datorren asteko astelehenean, urtarrilaren 11n, lehen saioko aho-zapore txarra kentzeko aukera izango dute. Alberdi eta Salaverri II.aren aurka jokatuko dute bigarren partida Zallan, Bizkaian.

### Sailkapen ligaxka

Txapelketan Aspe eta Baiko Pilota enpresetako zortzina pilotarik parte hartuko dute. Baiko Pilota enpresak Arteaga II-Elizegi bikoteaz gain, Zubizarreta III-Uriondo, Alberdi-Salaverri II eta Larrazabal-Eskiroz aurkeztu ditu. Asperen bikoteak honakoak dira: Elordi-Garmendia, Salaberria-O. Etxebarria, Egiguren V-Ruiz eta Zabala-Erostarbe.

Arteaga II.a berotzen, artxiboko irudian. T. VALLES

Bikoteek zazpi jardunaldiko bi itzuli jokatuko dituzte. Beraz, guztira, hamalau jardunaldi dituzte finalerdietako ligaxkarako txartela eskuratzeko. Bi bikote onenak zuzenean sailkatuko dira bigarren fase horretara eta, hirugarren eta seigarren postuen arteko sailkatuek, aurrera egin ahal izateko, play-offa lehiatuko dute.

Guztia ondo bidean, final handia maiatzaren 8an jokatuko litzateke, larunbatez.

# Gabonetako etenaren ostean, futbola martxan

Real Sociedad taldeak Athletic Club garaitu du Iberdrola Ligako derbian. Asteburu honetan, Real Madril izango du arerio Iraia Iparragirre kide duen taldeak. Añorga KKEk, berriz, Arratiaren aurka emango dio hasiera ligako bigarren itzuliari

**Txintxarri**

Asteazkenean euskal derbia izan zen Iberdrola ligan. Real Sociedad eta Athletic Club taldeak aurrez aurre egon ziren Zubietan, eta Reala izan zen garaile, 1-0.

Bi asteko atsedenaren ostean, Natalia Arroyoren jokalariek Atletico Madrilen aurkako porrota ahazteko denbora izan zuten eta hamalaugarren jardunaldiko derbiari gogoz aurre egiteko prest zeuden.

Real Sociedadeko jokalariak lehen minututik garaipenaren bila atera ziren. Nerea Eizagirrek abisua eman zuen baloia zutoinera bidaliz.

Pixkanaka, bizkaitarrak partidaren jabe egin eta talde txuri-urdina egoera larrian jartzen saiatu ziren. Realeko defentsak, ordea, irmo mantendu ziren bere lekuan eta Athleticen saiakerak zapuztu zituzten. Atsedenaldira husnako berdinketarekin iritsi zen derbia.

Bigarren zatia, lehenengoaren antzera hasi zen. Reala nagusi izan zen lehen minutuetan eta Nerea Eizagirreren baloi batek langa ukitu zuen.

Jarraian, bi taldeak eraso kontraeraso tarte batean sartu ziren. Energiaz bete zen derbia eta tentsio handia egon zen bi taldeen artean.

Atera iritsi zen behin baino gehiagotan Reala. Korner batean aurreratzeko aukera izan zuen, baita aurrerago Nahikariren jaurtiketa batekin ere. Baloiak zutoina ukitu zuen.

Athleticek, ordea, kontra batean bilatu zuen gola. Atera iristear zeudela, jokoz kanpokoa zegoela adierazi zuen epaileak.

Natalia Arroyok jokalari aldaketa batzuk egin eta ostean, Realak berriro hartu du partidaren zuzendaritza.

Horrela, 67. minutuan, Barbara Latorrek buruz zulatu zuen Athleticen atea Reala aurretik jarriaz.

Izaskun San Aniceto herritarra Tolosako jokalari batekin lehian. CONCHI SANCHEZ FRAIL

Batekin nahiko ez zuela eta talde txuri-urdinak bizkaitarren defentsa zigortu zuen behin eta berriro, eta, azken minutura arte, bigarren gola lortzeko aukera ugari izan zituzten.

Athleticek azken ahalegin bat egin zuen punturik gabe ez joateko, baina saiakerak langa ukitu zuen.

Iraia Iparragirre herritarrak ez zuen partidan parte hartzerik izan. Hala ere, aulkian egon zen bere kideak animatzen.

Puntuak ongi datozkio Realari, asteburu honetan partida gogorra jokatu beharko dute-eta. Iraia Iparragirrek eta taldekideek sailkapeneko bigarren postuan dagoen Real Madril izango dute aurkari, Zubietan, 11:00etatik aurrera.

### Bigarren itzulia

Lehen Nazionaleko Añorga KKEko jokalariek ere hiru astez egon dira lanean, gogor entrenatzen, lehiaketarik gabe.

Javi Solchagaren taldeak 2B taldeko ligaxkako bigarren itzuliari hasiera emango dio CD Arratiaren aurka bihar, larunbatarekin, hilak 9, 16:00etatik aurrera.

Azaroaren 29an ikusi zituzten aurpegiak azkenekoz bi taldeek. CD Arratiaren aurkako partida denboraldiko lehena izan behar bazuen ere, COVID-19 kasuak tarteko, hiru aldiz atzeratua izan zen. Azkenik, jokatu ahal izan zuten bi taldeek. Orduan bost eta huts gailendu zen Añorga.

Egun sailkapeneko azken postuan da talde bizkaitarra, puntu bakarrarekin. Aurreikuspenen arabera, zailtasun handirik gabe garaitu beharko luke Añorgak, Arratia bihar jokatuko duten partidan.

Izaskun San Aniceto eta Ainara Del Olmo herritarrak kide dituen Añorga sailkapeneko laugarren postuan da, eta hiruna garaipen eta porrot batzen ditu denboraldi honetan. Hala ere, bosgarren jardunaldiko partida jokatzeko du SD San Ignacioren aurka. Partida urtarrilaren 24an jokatuko dute. Asko landu beharko dute garaipena añorgatarrek. San Ignacio, egun, hirugarren postuan dago.

# Zarautz Errugbi taldeak atseden hartuko du asteburu honetan

Pasek Belenos Rugby Cluben aurka jokatu beharreko partida otsailaren 13ra atzeratu da

**Txintxarri**

Urtarrilaren 17ra arte itxarongo du Zarautz Errugbi taldeak, berriro ere zelaian lehiatzeko. Eguberrietako atsenaldiaren ostean, asteburu honetan Nazional B maila berriro martxan jarri eta zazpigarren jardunaldia jokatuko da. Zarauzko taldeak eta bertan jokatzen duten Lasarte-Oriako jokalariek, ordea, ez dute partidarik izango.

Zarauzko taldeak atzerapen eskaera egin ostean, Pasek Belenos Rugby taldea asturiarraren aurkako partida otsailaren 13an jokatuko da, Asti Zelaian, larunbatarekin.

Hurrengo astean, berriz, AVK Bera Beraren aurka jokatu beharko luke Zarauzko taldeak.

### Beltzak RT saskia

Bestalde, Beltzak RTk zozkatu duen saskiak badu zenbaki irabazlea, 7.048.

Beraz, urtarrilaren 6ko ONCEko azken lau zenbakiekin bat datorren txartela duen pertsona jarri dadila harremanetan Beltzak RTko kideekin saskia jasotzeko.

JALGUNE/CARLOS BLANCO SANCHEZ

# Argazki lehiaketak baditu sarituak

Lasarte-Oriako San Silvestre lasterketak Facebook bidez martxan jarritako argazki lehiaketak baditu sarituak: Jalgune elkartea eta Carlos Blanco Sanchez. Facebookeko orrialdean argitaratu diren argazkien artean atsegite gehien jaso dituzten irudiak sartu dira zozketan. Irabazleek Ventanas Alcarrek emandako gabonetako saski bana jaso dituzte.

## Eskola kirolaren aldeko manifestazioa, larunbatean Donostian

Bultza Kirola Euskadi plataformak deituta mobilizazioak izango dira Euskal Autonomia Erkideko hiru hiriburuetan, bihar, urtarrilaren 9an. Donostiako Bulebarrean hasiko da manifestazioa, 12:00etan, eta erdialdeko kaleetan zehar eskola-kirola jarduerak martxan jartzeko eskaera egingo dute plataformako kideek.

Eusko Jaurlaritzak taldeko kirolak etetea erabaki zuen, urri bukaeran. Abenduko dekretuan, berriz, 14 urtetik gorako kirolari federatuak bakarrik entrena zezaketela zehaztu zuten; gainerako mailetako kirolarien jarduera etenda utziz. Hori dela eta, 500 bat erakunde bildu eta Bultza Kirola Euskadi plataforma sortu dute. Eusko Jaurlaritzak eskolarteko kirola jarduera funtsezkotzat hartzea eta erakundeak eskola-adinean kirola praktikatzeko aukera ematea eskatzen dute.

Ttakun
Kultur Elkartea

# EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

54€ urtean

**Euskara eta kultura bidelagun!**

**Zuk**
54€ urtean ordaindu

**Guk**
Euskara eta kultura sustatuko dugu

**Errenta aitorpenean**
%20ko kenkaria izango duzu

## URTARRILAREN 10a baino lehen bazkide egiten bazara otar baten zozketan sartuko zara!

**Datuak bete eta utzi Ttakuneko bulegoko postontzian**
**On-line egiteko: www.txintxarri.eus/bazkidetu**

***Izen-abizenak:*** _____

***NAN:*** _____ ***Jaiotze data:*** _____

***Helbidea:*** _____ ***Herria:*** _____

***Telefonoak:*** _____

***e-maila:*** _____

***Kontu korrontea (IBAN):*** _____

*Bidali postaz edo utzi bulegoan:*
*Geltoki kalea 4, behea 20160 LASARTE-ORIA*

*On-line egiteko:*
*www.txintxarri.eus/bazkidetu*

*Data eta Sinadura*

☐ *Ttakun Kultur Elkarteak urtean zehar antolatzen dituen ekitaldien eta zozketen berri jaso nahi dut emailez*

*Ttakun kultur elkartearen izenean emandako datuak bazkideen kudeaketarako erabiliko direla adierazten dizugu: kudeaketa administratiboa, bazkideen onuren aplikazioa, zozketen partehartzea eta harremanetarako informazioa. Emandako datuak bazkidetzak irauten duen bitartean edota betebehar legalak irauten duen bitartean gordeko dira. Datu hauek ez dira hirugarren pertsonei eskainiko betebehar legala dagoen kasuetan ezik. Honetaz gain, edozein momentutan egikaritu daiteke sarbide, zuzenketa, ezeztatze, oposizio, mugatze eta eramangarritasun eskubidea, TTAKUN KULTUR ELKARTERA idatzi bat zuzenduz NAN agiria aurkeztuz, edo posta elektroniko bat bidaliz datubabesa@ttakun.eus helbidera.*

**Informazioa eta bazkidetzak:** ttakun@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943 37 14 48

## KOMIKIA




## ZORION AGURRAK



**Unai**
Zorionak maitia! Muxu potolo bat familiaren partetik!

**Julen**
Zorionak Julen osaba Jesusen partetik!!!



**Ainhoa**
Urte askotarako! Zelako oparia Mari Domingik ekarritakoa! Hamaiketako chopped aurten ez mesedez!

**Maddi**
Zorionak Maddiz!! Zure urtebetetze eguna mimoz betea egon dadila!!! Muxu pila Ttakuneko lankideen partetik.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

### Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurrak **eta** Bidali zure zorion agurra **formularioa bete.**
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

### Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus **helbidera, eta idatzi:** izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
Ez ahaztu irudiaz.

**Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.**

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN

**Ostirala, 8**
Min. 0º Max. 03º

**Larunbata, 9**
Min. 01º Max. 02º

**Igandea, 10**
Min. 01º Max. 03º

**Astelehena, 11**
Min. 02º Max. 03º

**Asteartea, 12**
Min. 02º Max. 06º

**Asteazkena, 13**
Min. 04º Max. 09º

**Osteguna, 14**
Min. 05º Max. 09º

## TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK:**
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERI AEK: 607 625 233

**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINTZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

## SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 4 | 7 | | | | | 3 |
| 2 | 8 | | | | 1 | | 7 | 4 |
| 5 | | 6 | 4 | | 8 | 2 | | |
| 6 | 4 | | | 1 | | | | 2 |
| | 3 | | | | 4 | 5 | 1 | |
| 7 | | | 6 | 8 | | | | 9 |
| | | | | 6 | 7 | 3 | 2 | |
| | 6 | | 1 | | | | 4 | 8 |
| 9 | | 2 | 8 | | | | 6 | |

## JAIOTAKOAK

**Izei Mendiluze Otxoa de Alda.** Urtarrilaren 1ean.

## HILDAKOAK

**Carmen Arroyo Belio.** Urtarrilaren 5ean.
**Mª Teresa Marin Sancho.** Urtarrilaren 1ean.
**Florencio Gutierrez Diego.** Urtarrilaren 1ean.
**Felix Garcia Blanco.** Abenduaren 18an.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| | |
|---|---|
| OSTIRALA, 8 | DE ORUE |
| LARUNBATA, 9 | DE MIGUEL |
| IGANDEA, 10 | DE MIGUEL |
| ASTELEHENA, 11 | LASA |
| ASTEARTEA, 12 | GIL |
| AZTEAZKENA, 13 | ACHA-ORBEA |
| OSTEGUNA, 14 | URBISTONDO |
| OSTIRALA, 15 | GANDARIAS-URIBE |
| LARUNBATA, 16 | DE ORUE |
| IGANDEA, 17 | DE ORUE |
| ASTELEHENA, 18 | DE MIGUEL |
| ASTEARTEA, 19 | DE ORUE |
| AZTEAZKENA, 20 | LASA |
| OSTEGUNA, 21 | GIL |

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**
A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943 55 17 93

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

## AZOKA TXIKIA

### LANA

ESKARIA

Baratzeko lanak egin edo pertsona helduak zaintzeko prest nago. Harremanetarako zenbakia, 627 20 61 10.

Pertsona helduak zainduko nituzke. Interna moduan edo orduka. Harremanetarako zenbakia, 676 18 84 11.

Pertsona helduen zaintzan lan bila nabil. Interna edo orduka izan daiteke. Harremanetarako zenbakia, 666 09 67 61.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitaletan gauak egiteko prest. 634 27 81 98.

ESKAINTZA

Biyak Bat adinekoen egoitzak bi langile behar ditu: podologo bat eta gizonezkoen ile-apaintzaile bat. Egoitzaren bulegoko ordutegia: astearteetan eta ostegunetan 10:30etik 12:30era. Interesatuek dei dezatela 943 36 39 64 zenbakira. biyakbat@gmail.com helbidera ere bidali dezakete mezua.

### IKASTAROAK

ESKARIA

Ingeleseko klase partikularrak emango nituzke. Jatorrizko hizkuntza dut, eta esperientzia ere bai eskoletan, institutuetan eta helduentzako eskoletan. 691 630 313 /b entley.ma@gmail.com

Txokoalden, tren geltoki zaharrean, txalaparta klaseak ematen ditut. tagoredoremi@gmail.com edo 678 071 041 (Whatapp ez)

### SALEROSKETA

SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, erosoa eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. 646 824 466.

**NABARMENDU ZURE EDUKIA**

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

**TAMAINA BERRIA**

Modulo txikia. 12 € ( BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

**TAMAINA BERRIA**

Modulo handia. 20 € ( BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

## ESKELA

## MANTTANGORRI HIRIBUSA




### Lanegunak

| Antxisu | Zabaleta | Atsobakar | Kotxerak |
|---|---|---|---|
| 08:00 | 08:10 | 08:15 | 08:20 |
| 08:40 | 08:50 | 08:55 | 09:00 |
| 10:30 | 10:40 | 10:45 | 10:50 |
| 11:00 | 11:10 | 11:15 | 11:20 |
| 11:30 | 11:40 | 11:45 | 11:50 |
| 12:05 | 12:15 | 12:20 | 12:25 |
| 12:30 | 12:40 | 12:45 | 12:50 |
| 13:00 | 13:10 | 13:15 | 13:20 |
| 13:30 | 13:40 | 13:45 | 13:50 |
| 16:30 | 16:40 | 16:45 | 16:50 |
| 17:00 | 17:10 | 17:15 | 17:20 |
| 19:30 | 19:40 | 19:45 | 19:50 |
| 20:00 | 20:10 | 20:15 | 20:20 |

txintxarri www.txintxarri.eus

**Argitaratzailea**
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

**Administraria**
Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

**Publizitatea**
Irati Zatarain.

**Laguntzaileak**
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

**Banatzaileak**
Julene Iraola eta Uxue Odriozola, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Jose Lanchas, Iñigo Garcia, Igone Mendizabal eta Lide Hidalgo.

**Informatika zerbitzuak**
IZT Informatika.

**PUBLIZITATEA**
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

**EGOITZA NAGUSIA**
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

**Inprimategia**
Zeroa Multimedia, S.A.

**Lege Gordailua:** SS-513/94
**ISSN:** 1134-0053
**Tirada:** 8.350 ale

TXINTXARRIk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 8

**ANDOAIN Erakusketa**
Leire Salaberria Ilustratzailearen erakusketak ateak irekiko ditu. 2015tik gaur arte egindako ilustrazio-lanen aukeraketa bat egin du Andoaingo artistak. Otsailaren 4a artea ikusgai izango da. Katapulta Plataformak sustatutako ekimena.
**Bastero Kulturgunea.**

**USURBIL Antzerkia**
*Maita(k)ale* eta *Mundu berri bat* antzezlan laburrak eskainiko dira. Mikel Fernandino herritarrak idatzitako testua da *Maita(k)ale* lana; bere anaiak, Aitor Fernandinok eta Ane Pikazak oholtzara daramate istorioa Getari Etxegarairen zuzendaritzapean. Sarrerak *usurbilkultura.eus* atarian eskuragarri, 3 euro.
**Sutegiko auditorioa, 18:00etan.**

## LARUNBATA 9

**LASARTE-ORIA Mobilizazioa**
Sare Herritarraren *Etxerako. Elkarbizitzarako. Bakerako. Bidea Gara* ekimenaren barruan, beste 215 herrietan bezala, Lasarte-Orian ere mobilizazioa egingo da. Kantua eta dantza izango dira ekitaldian.
**Okendo plaza, 17:30ean.**

## ASTELEHENA 11

**LASARTE-ORIA Solasaldia**
Ahoztar Zelaieta kazetaria *Zaldibar Zona Cero* liburuari buruz solastuko da. Aforo mugatua. Aire Garbia ekimenak antolatutako ekitaldia.
**Antonio Mercero aretoa, 19:00etatik 20:30era.**

**LASARTE-ORIA Ikus-entzunezkoa.** Operaren zaletuek, 2019 urtean, Bartzelonako Liceuk eta Sevillako Maestranzak elkarlanean ekoitzitako *Tosca* operaz gozatuko dute. John Fioreren zuzendaritza musikala eta Paco Azorinen muntaia du lanak. Gorrotoa, amodioa, pasioa eta erlijioa nahasten dira Giacomo Pucciniren lan klasikoan. Napoleonek inbaditutako Erroman, Toscak (Tatiana Serjan, sopranoa), Mario Cavaradossik (Roberto Aronica, tenorea) eta Scarpia baroiak (Lucio Gallo, baritonoa) amodiozko triangelu zorigaiztokoa biziko dute. Jatorrizko hizkuntza eskainiko da gaztelaniazko azpidatzizkiekin.
**Manuel Lekuona kultur etxea, asteazkena 13, 18:00etan.**

## ASTEARTEA 12

**DONOSTIA Literatura solasaldia**
Igor Leturiak euskaraz zuzendutako solasaldian, Harkaitz Cano herritarrak gidoilari bezala eta Iñaki G. Holgado irudigileak elkarlanean egin dituzten lau komikiak aztertuko dituzte: *Piztia otzanak* (2008), *Zebra efektua* (2013), *Museo bilduma* (2016) eta *Amets alokatuak* (2019). Egileak saioan bertan egongo dira. Sarrera librea, jarleku guztiak bete arte.
**Intxaurrondo kultur etxea, 19:00etan.**

## ASTEAZKENA 13

**LASARTE-ORIA Ikusentzunezkoa**
Opera digitalaren barruan, Giacomo Pucciniren *Tosca* lanaz gozatuko dute zaletuek. Sarrerak aurrez, 7,5 euro; egunean, 9 euro.
**Manuel Lekuona, 18:00etan.**

## ZINEMA

**LASARTE-ORIA**
MANUEL LEKUONA
**Corpus Christi**
Ostirala: 19:00.
**En guerra con mi abuelo**
Igandea: 19:00.

**Trolls 2: Gira mundial**
Igandea 17: 17:00.

**ANDOAIN**
BASTERO
**Madame Curie**
Larunbata: 19:00.
Igandea: 19:00.
Astelehena: 19:00.
**Mi amigo Pony**
Larunbata: 16:30
Igandea: 16:30.

**HERNANI**
BITERI
**Erase una vez**
Larunbata: 16:00 eta 19:00.
Igandea: 16:00 eta 19:00.
Astelehena: 16:30.

LABURPENA

**Corpus Christi**
**Zuzendaria:** Jan Komasa. **Gidoia:** Mateusz Pacewicz. **Argazkia:** Piotr Sobocinski Jr. **Musika:** Evgueni Galperine, Sacha Galperine. **Herr.:** Polonia (2019). **Antzezleak:** Bartosz Bielenia, Eliza Rycembel, Aleksandra Konieczna, Tomasz Zietek, Leszek Lichota, Lukasz Simlat, Barbara Kurzaj, Zdzislaw Wardejn. **Iraupena:** 116 minutu.

## Erlijioa, harremanak eta barkamena

Okendo Zinema taldek *Corpus Christi* filmarekin emango dio hasiera 2021 urteari.

Film poloniarra Oscarretan lehiatu zen. Nazioarteko film onenaren hautagai zen, baina ezin izan zuen *Parasite* hegokorearra garaitu. Europako Zinemaren Sarietan hainbat hautagaitza izan zituen: film onena, zuzendaritza onenar, aktore onena eta gidoi onena. Baina sariak ere lortu ditu. Bestrak beste, Bartosz Bielenia aktoreak Chicagoko Zinema jaialdiko sari nagusia jaso zuen bere lanarengatik.

Daniel (Bartosz Bielenia) 20 urteko gazte bat da. Erreformatorio batean bizi da eta oso erlijiosoa denez, apaiza izan nahi du. Aurrekari penalak ditu eta horrek bere nahia galarazten du. Herri txiki bateko aroztegi batera doa lan egitera, baina iristean apaiz lanak egiten hasten da eta herrixkako parrokiaren kargu egiten da. Gaztearen etorrerak eragin handia izango du herriko bizitzan eta eliztarretan.

Jatorrizko hizkuntza eskainiko da filma gaztelaniazko azpidatzizkiekin.

## Zaldibarren gertatutakoaz gehiago jakiteko

Ahoztar Zelaieta kazetari bizkaitarrak *Zaldibar Zona Cero* liburuari buruz hitz egingo du datorren asteko astelehenean, urtarrilak 11, Antonio Mercero gunean, 19:00etatik 20:30era. Lasarte-Orian Aire Garbia plataformak antolatu du ekitaldia. Zehaztu duenez, hitzordua aurrez hartu behar da, aforoa mugatua baita. Hitzaldi horretara joateko interesa dutenek 689 71 90 36 telefonora deitu behar dute, edo, bestela, *lasarteorianairegarbia@gmail.com* helbide elektronikora idatzi. Plataformak jakinarazi duenez, Zelaietak euskaraz eta gaztelaniaz egingo du aurkezpena, bi hizkuntzak tartekatuz.

Joan den urteko otsailaren 6an amildu egin zen Zaldibarko Eitzaga auzoko zabortegia, eta, besteak beste, bertan lan egiten zuten bi pertsona –Joaquin Beltran eta Alberto Sololuze– milaka tona zaborren azpian harrapatuta geratu ziren. Sololuzeren gorpua hondamendia gertatu eta sei hilabete pasatxora aurkitu zuten; Beltran oraindik ez dute aurkitu.

Gertakari horretatik abiatuta, ikerketa-lan mardula egin du egileak, Ahoztar Zelaietak, Zaldibarren gertatutakoaren atzean dauden zergatiak aurkitu eta azaltzen saiatzeko. Detektibe batek kontatzen du istorioa: "errelato nobelatua" dela zehaztu izan du idazleak. Zaldibar Zona Cero liburuaren aurreneko edizioa 2020ko irailean argitaratu zuen Txalaparta argitaletxeak.

Zelaietak azaldu duenez, Zaldibarren jazotakoari buruz egindako ikerketa oso mardula da, eta liburua idazterakoan laburtu egin du, eta "irakurterraza" egin. "Bi pertsona hil dira hondamendi horretan; horrek bultzatuta, senideei, herrikideei eta inguruko biztanleei jazotakoari buruzko informazioa eskaini nahi izan diet".




Egilea: Ahoztar Zelaieta.
Argitaletxea: Txalaparta.
Orrialde kopurua: 160.

Erabiltzaile gehienak mugikorretik sartzen dira *www.txintxarri.eus* web-orrira. TXINTXARRI

# Gero eta gehiago gara

2020. urtea ez da emankorra izan alor askotan, baina bai TXINTXARRI aldizkariaren trafiko digitalaren datuei dagokienez: herritarrek atari digitalera egindako bisitak %30 igo dira, 2019koekin alderatuta. Urte berrirako apustua izango da webgunea indartzen jarraitzea

## 2020. urteko eduki irakurrienak

Honako eduki hauek izan dira bukatu berri den urteko hamar eduki irakurrienak:

1 • **'Dena amaitzen denean'.** Lierni Rekondo zutabegileak iritzi artikulua bertso bidez egin zuen apirilean, itxialdi betean.
2 • **Koronabirusaren informazioari buruzko kanal berezia.** Martxo erdialdean alarma egoera indarrean sartu zenetik, Txintxarri aldizkariak kanal berezi bat sortu zuen haren web-orrian, COVID-19aren inguruko informazioa biltzeko.
3 • **'Euskaraldiko txapak non, noiz eta nola jaso ditzaket?'.** 2.000 herritar baino gehiagok hizkuntza ohiturak astindu zituzten azaroaren 20tik abenduaren 4ra. *Ahobizi* edo *belarriprest* txapa jasotzeko informazioa biltzen zuen albisteak interesa piztu zuen.
4 • **Kanal berezia: Ttakun KEk antolatutako Haurraren Eguna.** Haurraren Eguna izeneko ekimena antolatu zuen Ttakun Kultur Elkarteak. Apirilean lehenengoa, eta ekainean bigarrena. Ekintzak, materiala, bideoak...jasotzeko, kanal berezi bat sortu genuen.
5 • **'Zenbait udaltzainen jarrera dela-eta'.** Herritarrek eskutitzak bidali ohi dituzte erredakziora. Maiatz erdialdean iritsitako hori izan zen pasa den urteko irakurriena.
6 • '**Ttakun KEren Udako Txokoetako begirale taldearen idatzia'.** Uztail amaieran idatzi bat plazaratu zuten Ttakun KEren Udako Txokoetako begiraleek, bizi zuten egoeraren berri emanez.
7 • '**Berrogeialdia arintzeko, kantujira birtuala'.** Etxean konfinatzera behartu gintuztenetik astebete pasa ez zenean, Xumelakidz taldeak iragarri zuen kantujira birtual bat egingo zuela, itxialdi hori arintzen saiatzeko. Gogotsu hartu zuten ekimena herritarrek, horri buruzko albistea irakurrienetako bat izan baita.
8 • **Kontzertua eta elkarrizketa.** Maialen Aristegi Letamendia kantautore gazteak kontzertua eskaini zuen TXINTXARRI-ren irakurleentzako, bere gelatik. Elkarrizketa ere eskaini zuen.
9 • **'Xirimiri elkarteari bi kontu enbargatu dizkio Auzitegi Nazionalak'.** Apiril amaieran jakinarazi zuen Xirimiri elkarteak bi kontu enbargatu zizkiola Auzitegi Nazionalak, *Herriko tabernen auzia* izenez ezagutzen den kasuaren baitan.
10 • **Pako Bergara irakaslearen agurra, bertsotan.** 40 urtez herrian irakasle lanak egin ostean, erretiroa hartzeko garaia iritsi zitzaion irailean Pako Bergarari. Bertso batzuk prestatu zituen Lasarte-Oriari eta ikasleei agur esateko.

**Txintxarri**

Albiste on baino txar gehiago eman digu 2020an. Hasi berri dugun urtean ere hala izango den ala ez esateko oso goiz da oraindik, baina, tira, urte berriko aurreneko aldizkariko kontrazalera dakarkigun hau ezin hobea dela esan dezakegu, TXINTXARRI egiten dugunontzat behintzat: *www.txintxarri.eus* atari digitalaren trafikoa nabarmen handitu zen iaz, 2019ko datuekin alderatuta. Bereziki pozten gaitu horrek, duela urte batzuk egin genuelako apurka-apurka aldizkariaren bertsio digitala indartzeko apustua. Lanean segitzeko sekulako bultzada ematen digu.

2020. urtean 306.253 bisita jaso dituzte guk sortutako edukiek, 2019an baino %30 gehiago –214.255 izan ziren urte horretan–. Bukatu berri den urtean erabiltzaile gehiagok nabigatu dute *www.txintxarri.eus* atari digitalean, 49.602 pertsonak, eta horietatik 47.976 berriak izan dira. Saio gehiago hasi dituzte, 128.099 –2019an 81.096 izan ziren; %37 gutxiago–, eta luzeagoak izan dira, bi minutu eta 33 segundokoak, batez beste –02.28koak izan ziren 2019an–. Erabiltzaileko saio gehiago hasi dira 2020an, 2,58, baina saioko orri gutxiago bisitatu dira 2019an baino, 2,39 –duela bi urte, berriz, 2,64–. Azken adierazle horretan izan ezik, beste guztietan hobetu ditugu datuak, eta zuri esker izan da hori, irakurle. Mila esker konfiantzagatik.

### 2020KO APIRILEAN JASO GENITUEN BISITA GEHIEN, ITXIALDI BETEAN: GUZTIRA, 40.944

Esan dugu 2020an 306.253 bisita jaso dituztela *www.txintxarri.eus* atarira igo ditugun edukiek. Hilabeteko batez bestekoa atera dugu, eta honako hau da zifra: 25.521. 2019koa, berriz, 17.854. Ia 8.000 bisitako aldea. Logikoki, aipatutako batez besteko horretatik goitik daude zenbait hilabete, eta behetik beste batzuk. Azpimarratzekoak dira iazko martxo eta apirilekoak, orduan lortu baikenituen orain arteko datu onenak bisitei dagokienez: 40.897 eta 40.944, hurrenez hurren. Dakizuenez, martxo erdialdean Espainiako Gobernuak alarma egoera ezarri zuenean eta COVID-19a guztiz ezezaguna zenean, paperezko edizioa etetea erabaki genuen gure langileen osasuna bermatze aldera. Horrekin batera, funtsezkoa ikusi genuen gure web-orriari bultzada indartsuago bat ematea, une horretako egoera ziurgabearen aurrean ahalik eta informazio kalitatezkoena eskaintzeko eta gure irakurleen informazio-egarria asetzen saiatzeko. Bistan da egindako ahaleginak fruituak eman dituela.

**2020ko eduki irakurrienak**

Joan den urteko eduki irakurrienen artean, gehienek dute COVID-19arekin zerikusia. Batzuek zuzenagoa, pandemiaren berri emateko sortu genuen kanal bereziak bezala, eta zeharkakoagoa besteek. Eduki irakurriena (entzunena, kasu honetan), esate baterako, Lierni Rekondo zutabegileak itxialdi betean prestatu zuen zutabea, bertso formatuan: *Dena amaitzen denean.* Hausnartzekoa, eta, batez ere, gozatzekoa. Hamar irakurrienetako eta ikusienetako bat izan da baita ere Maialen Aristegi Letamendia kantautore gazteak eskainitako kontzertua eta elkarrizketa, konfinamendu hertsienaren garaian hori ere, edo alarma egoera ezarri eta astebetera Xumelakidz taldeak iragarri zuen kantujira birtuala. Albiste honi gehitu diogun zatiduran kontsulta ditzakezue hamar horiek.

### LIERNI REKONDOREN 'DENA AMAITZEN DENEAN' IRITZI ARTIKULUA IZAN DA EDUKI IRAKURRIENA

Albiste, artikulu, kronika, argazki galeria, elkarrizketa edo erreportaje, lanean jarraituko dugu 2021. urtean Lasarte-Oriari buruzko informazioa euskaraz eta gertutasunez jaso dezazuen. Gero eta gehiago gara!